

➤ IRABAZI ITURRIAK

Gure enpresak izango dituen diru-sarrereren oinarria aktiboen salmenta izango da. Hiru produktu ezberdin salduko ditugu: alde batetik eraztuna soilik, bestetik ezkertientzat pentsatuta dagoen moldea eta hirugarrena bien baterako salmenta.

- Eraztuna: 2,50€
- Ezkertien moldea: 3,50€

Alde batetik, prezioa eskuragarri izango da bezeroentzako, hau da, ikasleek erosi ahalko dute, eta horren bidez, enpresak dirua irabaziko du. Hasieran jarritako prezioa finkoa izango, da. Prezio hori erabaki dugu enpresako partaide guztien artean uste dugulako gure bezeroak diru kantitate hori ordaintzeko prest egongo direlako.

Gainera prezio horiekin guretzako irabazi kantitate bat egongo da berriro ere enpresak produktuetan berrikuntzak egiteko edo kantitate gehiago egiteko erabiliko duguna, hau da, enpresaren hornikuntzan inbertituko ditugu irabazien kantitate guztia.

Horretaz gain, lehiakideekin alderatuta gure prezioak garestiagoak dira, nahiz eta ikasleentzat izan baina gure Eraztuna eta Ezkertientzako moldea erosoagoak eta pertsonalizatuagoak dira lehiakideekin alderatuta, horrela ikasleek haien ikasketan zailtasun gutxiagoarekin jardungo dute.

Beste alde batetik, prezio hauek izango dira bezeroentzako erabiliko ditugun prezioak, baina kantitate handietan erosten dituzten enpresak prezioan beherakada bat edukiko dute, hots, enpresa handiek handizka erosiko dizkigutenez gure produktuak prezioan %40ko beherakada edukiko dute biontzako onuragarria delako eta horrela bezero hori mantentzeko lagungarria delako.

Era berean, gure diru sarrerak errepikariak izango dira enpresa konkretu batzuekin lan egingo dugulako denboran zehar, hau da, gure enpresak bezero konkretu batzuk izango ditu eta haiek gure produktuaren kantitate jakin bat ordainduko digute hilean

behin edo hiru hilean behin. Gure diru sarrerak hainbat modutan sortuko ditugu, alde batetik produktuaren salmentatik egingo dugu gure diru sarrerarik handiena eta gero publizitatean inbertituko dugunez ikusgarritasuna lortuko dugu gure diru sarrerak handituz.